

Getxo >MEETING<



Irailak 19 Zure negozioaren esentziarekin birkonektatu.

Getxo MEETINGen saio bakoitza aprobe txatu nahi dugu zure enpresarekin aurrera egiteko behar duzun gai gako horretan sakontzeko, zauden fasean zaudela.

Hala, azken saio hau erabili dugu zure negozioarentzako garrantzitsuak diren alderdiak aurkitzeko; izan ere, bestela horiek ez dira argitara ateratzen. Eta horretarako erabili dugu Art Thinking metodologia, artea erabiltzeko (kasu honetan, GetxoPhoto jaialdiko erakusketak) ispilu gisa, erakusteko gure enpresaren egunerokotasunean lehenengo begiratuan ikusten ez dugun hori.

Agian, jorratzen diren gaiak enpresen ABCa dira. Art Thinkingek ahalbidetzen duena da ikuspegi berri bat izatea, agerian jartzeko bestela sentazio edo erdilandutako pentsamendu gisa geldituko litzatekeen hori. Eta, hala, egoera berrietarantz aurrera egitea modu kontzienteagoan.

Art Thinking: parte hartzeko interesgarria, deskribatzeko zaila?

Helburua: Norbere negozioarekin sakonki birkonektatzea, egiten duzun horren autentikotasunari berriz helduz eta zure negozioetik ondo sentiarazten zaituen hori arnastuz.

Hautatutako irudiak begiratzearen bidez, galdera gakoak egin genituen, fokua hainbat gaitara bideratzeko asmoz. Hona hemen laburpena:

1. Lantzen ari zaren hori nola egiten duzu? Zerk ezberdintzen du besteetatik? *Nola* da gakoa, horrek ezartzen duelako ezberdintasuna. Izan horretaz kontziente probetxua atera ahal izateko.
2. Zertarako egiten duzu egiten duzun hori? Zure lanaren asmoa garrantzitsua da, barneko motibazioa.

3. Zer islatzen du zure enpresak? Transmititzen duzun horrek, zuk nahi izan edo ez, zuri buruz gehiago dio zuk adierazi nahi duzunak baino.
4. Zer itzultzen diozu gizarteari? Zure produktu edo zerbitzuak saltzen diozunari ematen diozuna beharizan bat estaltzea baino gehiago da: gizarteari zerbait itzultzea da.
5. Elkarlanean jarduterakoan, zer izan behar da komunean beste pertsonekin? Gure elkarlanetan bilatu beharreko balio komunak garrantzitsuak dira beldurrik gabe zubiak eraikitzeko.

Azken finean, zure enpresa mugitzen duen guztia eguneratzean datza. Informazio hori eguneratzea komeni da; izan ere, zuk zeuk eta errealitateak eboluzionatu egiten duzue egunez egun, eta zure negozioaren planteamenduak ere berritu egin behar dira.

Zure enpresa Getxon baldin baduzu, bat egin hamabostean behin izaten den saio honekin, aurrera egin eta motibazioa lortzeko. Etorri nahi duzu hurrengora?

Getxo MEETING: Zu bezalako profesionaleri zuzendutako saio tematikoak, praktikoak eta bitaminadunak.

Eman izena mezu elektronikoko bidez: getxopro@getxo.eus edo deitu 94 466 01 40 telefono zenbakira.